

IRUÑEKO MAQBARAREN AURKIKUNTZA ETA
ERRELATO HISTORIOGRAFIKO KLASIKOAREN
APURKETA

Garazi Maeso Gezuraga

Zuzendaria: Jesus Lorenzo Jiménez

Historiako Gradua

2020-2021. ikasturtea

Erdi Aroko Saila

Letren Fakultatea



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

Aurkibidea

Laburpena	2
Sarrera	3
<u>Gazteluko Plaza Aldeko Plataforma eta Iruñeko herriaren erantzuna</u>	6
Gazteluko Plazako nekropoliaren aurkikuntza testuinguruan	8
<u>Gazteluko Plazako nekropoliaren aurkikuntza testuinguruan: “mairuak eta kristauak”</u>	8
<u>Gazteluko Plazako nekropoliaren aurkikuntza testuinguru historikoan: Iruña eta al-Andalus</u>	11
Al-Andalusekiko ikuspegia zabaltzen duten hainbat aztarna	15
<u>Gazteluko Plaza</u>	15
<u>Antzeko aztarnadun Iruñea inguruko beste adibide batzuk</u>	18
<i>Argaray</i>	18
<i>Kondestablearen Etxea</i>	19
<i>San Esteban (Berriain)</i>	21
<i>Arizkoa (Monreal/Elo)</i>	22
Ondorioak eta aurkikuntzak planteatzen dituen galdera berriak	22
Bibliografia	24

1. Laburpena

2003an Iruñeko Gazteluko Plazan egin zen indusketa arkeologiko batean, beste hainbat aztarnaren artean, nekropoli islamiko bat agertu zen. Aurkikuntza honek Iruñeko erresumari buruzko historiografia hankaz gora jarri zuen, argi utziz islamaren presentzia ordura arte uste zena baino askoz handiagoa izan zela. Honen aurrean, lan honek aurkikuntza hau bi ardatzen gainean testuinguratzea du helburu: alde batetik, historiografikoki, hots, nola hartu zuen historiografiak aurkikuntza; eta, bigarrenik, historikoki, aztertzeko zein eragin izan dezakeen aurkikuntza honek Iruñeko Goi Erdi Aroaren historia berriidazteko.

Hari hau jarraituz, lehenik eta behin eta sarrera bezala, Iruñeko biztanleriak berriak jasotzerakoan izandako bi erantzun mota aurkezten dira. Alde batetik, eta bi komikiren bidez ilustratuta, publiko orokorraren erantzun ohikoena islatzea du helburu sarreraren lehen zati honek, gure gizartean islamiar erlijioaren inguruan dauden estereotipoak eta aurreiritziak argitara ateraz. Honi kontrajarriz, sarreraren bigarren zatian Gazteluko Plaza Plataformaren liburuan oinarritutako indusketa-prozesuaren kronologia bat eta honekin sortu ziren polemiken aurrean auzotar talde honek aurrera eramane zituen protesten isla egingo da, beti ere aztarna islamiarretan zentratu beharrean, gehiago iruñear ondarearen galeraren aurrean auzotarrek izandako erantzunean baino.

Honekin amaitzean, hurrengo atala lanaren mamia garatzeaz arduratuko da, hasieran aipatutako bi ildoetara eutsiz. Lehenengo, aurkikuntzara arteko nafar historiografia klasikoaren pentsabide nagusiaren azterketa bat egingo da, argi uzteko zein testuingurutan heldu ziren nekropoli islamiar honen berriak, konparazioz argi uzten duena zein apurketa handia eragin zuen ordura arteko Iruñeko erresumaren marko historikoan. Horretarako, nafar historiografia espainiar historiografiarekin multzokatzen da atal honetan, XIX. eta XX. mendeetan biak eskutik zihoazelako ugaritan, eta biek diskurtso antzekoak aurkezten zituztelako, bereziki al-Andalusean inguruan hitz egiterako orduan.

Bigarren atala, berriz, testuinguru historiko deritzona da, eta hirugarren eta azken atalean azalduko den aurkikuntza azterketa kronologikoei zein garaitan kokatzen duten aurkeztea du xede, irakurleak hurrengo atalera heltzean ikuspegi osatuago bat izan dezan aztarnen garrantzia ulertzerakoan, eta jakin dezan al-Andalusek iraun zuen urte guztietan zehar noiz kokatzen den aurkikuntza. Izan ere, aurkikuntza arkeologiko bati

buruz marko historikoan kokatu gabe irakurtzea emaitza argirik aterako ez dituen jarduera da.

Azkenik, lanaren azken atala Gazteluko Plazaren indusketaren txosten arkeologia aurkeztean datza, eta inguruko beste aurkikuntza batzuekin testuinguratuta aurkeztuko da, gertaera isolatu bat ez dela ulertzera eramateko. Lanaren atal honen helburua da datu objektiboago batzuk ematea, irakurleak testuinguratzearen ondoren emaitzak ikus ditzan eta egoerari buruz ondorio propioak atera ditzan. Izan ere, lan honek amaieran egilearen ondorio propio batzuk aurkeztuko baditu ere, helburu nagusia irakurlearengan galderak sortzea da, eta Iruñeko erresumaren historiari buruz dakiena dudan jartzea, orain arte nagusi izan den errelatoa dudan jartzeko gai izatea.

2. Sarrera

Iruñeko hiriak mende aldaketa egoera berri ugariarekin bizi izan zuen. Yolanda Barcinaren, hiriaren lehen emakumezko alkatearen, agintaldia hasi berri, hiritar guztiek gauza berri ugari espero zituzten. Eta, berrikuntzek ez zuten asko behar izan agertzeko. Izan ere, 2000ko abenduaren amaieran udaletxean Gazteluko Plazan lur azpiko aparkaleku bat eraikitzeko proiektua aurkeztu zen. Aurkeztu bezain pronto, honen aurkako ahots ugari altxatu ziren, bai politikari bai auzotarren artean, jakin bazekitelako plaza honen azpian hiriaren historia luzearen erakusle diren aztarna ugari ezkututzen zirela.

Lan honen xedea obra hauetan zehar aurkitu ziren aztarnen artean batean zentratzea da: nekropoli musulmana. Besteak beste, aurkikuntza guztien artean hau izan zelako askorentzat harridura handiena, eta baita ere polemika gehien altxatu zuena. Herritarren artean zegoen harridura eta ezjakintasun hau oso ondo ilustratzen dute obrek iraun zuten bitartean bi komikigile nafarren argitaratu zituzten komiki sortak.

Cesar Oroz eta Asisko Urmeneta Iruñean oso garai berdintsuan (lehenengoa 1968an eta bigarrena 1965ean) jaiotako bi komikigile nafar dira. Binetak egiten ibilbide luzea dute biek eta ospe handiko lanak sortu dituzte. Orozek, adibidez, 2006tik aurrera *La Cinta de Oroz* izeneko tirak argitaratu ditu ABC egunkarian eta Urmenetak, berriz, hainbat kolaborazio egin ditu prentsan (Argia egunkarian bereziki), Orozek ez bezala tira egonkor bat izan ez duen arren. Gauzak horrela, biek hurbiletik bizi zuten 2002an eman zen Gaztelu Plazako nekropoli musulmanaren aurkikuntza eta indusketa, eta,

bakoitzak bere erara, komikigile hauen lanetan islatuta gelditu da bakoitzak prozesu hau nola antzeman zuten.

Orozen kasuan, egoera honi buruz egin zituen tirak *Diario de Navarra* publikatu ziren, eta lehen 2002ko otsailetik jada egoerari buruzko lehen aipamenak ikusiko ditugu, hasieran indusketan zehar aurkitzen ziren aurkikuntza ugarien inguruan. 2002ko otsailaren 26an dugu “hilerri musulman” bati buruzko lehen aipamena Orozen eskutik, eta hurrengo hainbat hilabeteetan zehar ugaritu egingo dira aurkikuntza eta polemikaren inguruko tirak. Komikietan ohikoa den topiko eta irudi esajeratuen erabilerarekin Orozek ordura arte pentsaezina zen Iruñeren iragan islamikoari buruzko egoerak imajinatuko zituen, askotan ohitura islamiarrenanako ezagutza eskasa zuela ere argi utziz. Orokorrean, marrazkilariak jarrera sinesgogorra erakusten du Goi Erdi Aroko komunitate islamiar baten inguruan. Honen erakusle da, adibidez, 2002ko otsailaren 28an argitaratu zuen komikia, jarraian ageri dena:




1. irudia: Islamiar gizarteak Iruñean ezartzeko izan zitzakeen zailtasun kulturalen aipamena, umorezko tonuan (Oroz, 2003, 36)

Ikusten den bezala, mendebaldeko munduan famatu diren erlijio islamiarraren “debekuak” adibide bezala jartzen ditu musulman batek Iruñean gelditzeko zailtasunak izango lituzkeela adierazteko, hirian txerritik eratorritako produktuak edo alkohola kontsumitzeko ohitura dagoelako gaur egun. Nire iritziz bineta honek erakusten diguna da nola egileak komunitate islamiar hau kanpotar bezala ulertzen duen, Iruñera denboraldi bat igarotzera etorri zena. Ulegarria da, hala ere, hau horrela izatea; izan ere, momentuko nafar korrante historiografikoak ezagutuz eta Oroz historialaria ez dela kontuan izanda, ezin da espero historialarien artean errepikatzen ziren ideiangandik asko urruntzea, hori baitzen publiko orokorrak zuen ikuspuntua eta. Gorago ilustratutakoak, eta beste zenbait tirak, garai horretan Iruñeko hiritarren artean errepikatzen zen iritzia nahiko ondo islatzen dutela pentsatzea ez da zaila europar

gizartean duela hogei urte, baina gaur egun ere, errepikatzen diren jarrera anti-islamikoak kontuan hartuz.

Garai berean, Urmenetak ere gai berari hitz egiteko komiki sorta bat sortu zuen baita, baina ikuspuntu desberdin bat aditzera ematen duena. Hasteko, komiki hauen atzean dokumentazio historiko zabalagoa egon dela antzeman daiteke. Bestalde, Urmenetak ez dirudi iragan islamiarra gaitzesten duenik, eta horren orde, euskal historian famatuak diren pertsonaiak al-Andalusen testuinguruan kokatzen ditu, eragin islamiarrarekin, eta orokorrean jarrera positiboagoa erakusten du Orozek baino Iruñeko hirian bizi izan ziren islamiar biztanleez hitz egiterako orduan. Hala ere, horrek ez du esan nahi Urmenetak topikorik gabeko komikiak sortu zituela. Hala nola, homoerotismoaz, harenez edo lapurrei eskuak mozteaz hitz egiten du bere komikietan Urmenetak, zeintzuk, berriz ere, islamiar erlijio eta gizarteen topikoak dira, hau ondo ezagutzen ez duten herrialdeetan errepikatzen direnak.



2. irudia: Islamiar kulturaren estereotipoen beste hainbat adibide, berriz ere Iruñeko gizarteak barneratzea zailtzat hartzen dituenak autoreak (https://issuu.com/h28aldizkaria/docs/h28_saretirikoa)

Oro har, esan daiteke bi komikien artean gizarte islamiarren trataera desberdinak antzeman daitezkeen arren, biak harridura eta sinesgogortasun puntu batetik hasten direla, hainbat eta hainbat urtetan “kristauteriaren oasi” bezala ezagutzen zen Iruñean lehenik eta behin jatorri islamiarreko aztarnak aurkitzeak, eta, beranduago hauek komunitate hau hirian pentsatzen zena baino askoz ere urte gehiagotan gelditu zela ezagutzeak sortu zuena.

2.1. Gazteluko Plaza Aldeko Plataforma eta Iruñeko herriaren erantzuna

2000 urteko abenduaren 26an Iruñeko udaletxean Gazteluko Plazan parking bat eraikitzeko proiektua aurkeztu zen. Honek 800 plaza inguru izango zituen, eta ahal zen neurrian plazan zeuden aztarna arkeologikoak errespetatuko zituen. Proiektu hau aurkeztu zen momentuan bertan herritar ugari aurka agertu ziren, eta hilabete beranduago, urtarrilaren 10ean, jada egin zen lehen manifestazioa obra honen aurka. Horrez gain, udaletxeko zenbait zinegotzik (hala nola, Euskal Herritarrok taldeko Carlos Otxoa eta Batzarreko Tere Gonzalezek) ere erakutsi zuten proiektu honen aurkako iritzia¹.

Gauzak horrela, eta herritarrek eta zinegotziek aurkako iritzia erakutsi arren ere, Yolanda Barcinaren gobernuak urtarrilaren 11n proiektua onartu zuen Nafar Herriaren Batasuna (UPN), Nafarroako Alderdi Sozialista (PSN) eta Nafarroako Demokraten Elkargunea (CDN) alderdien botuekin. Egun berean, Gurelur eta auzokideen taldeak manifestazio berri bat antolatu zuten, erabakiaren protesta argi uzteko. Talde hauek, manifestazio ugari antolatzeaz gain, erreferendum bat antolatzeko bidea ere hasi zuten urtarrilean, herriak erabaki horretan determinazio eskubidea zuela argudiatuz.

Hala ere, apirilaren 5ean udaletxeak erreferenduma ukatu zuen, eta errekurtsio deusestatu eta protesta ugariaren ostean, uztailaren 23ko gaueko 05:10etan plazako zuhaitzak moztu edo birlandatu zituzten. Gertaera honek, argi dagoen bezala, izugarri haserretu zuen herria, eta 23ko goizeko 10:30etatik protestak hasi ziren lanen aurka, eta 6 gazte atxilotuak izan ziren obra langileak geldiarazten saiatzeagatik. Eguna protestaz eta gatazkak beteta egon zen, eta herritarrek 18:00etan ospatu zen asanblada batean egunero 20:00etan kontzentrazioa egitea erabaki zuten, hartutako erabakien aurkako iritzia erakusteko.

Protestek aurrera jarraitu zuten eta Iruñeko auzokideek herri-erreferendum bat antolatzea ere erabaki zuten, aurkaritza erakusteko modu bezala. Ekimen guzti hauek, baina, ez zuten eraginik izan udaletxearen erabakietan eta abuztuaren 28an indusketa hasi zen. Lehen egun honean Antzoki Nagusiaren zimenduak agertu ziren, beste hainbat

¹ Atal guzti honi buruzko informazioa “Plaza del Castillo: Una lección de democracia ciudadana frente a la destrucción de 2.000 años de Patrimonio” liburuan jasotako dago, Gazteluko Plazaren Plataformak argitaratua. Liburuko hau Gazteluko Plazako ondarearen defentsarako eratu zen auzotar plataformak argitaratu zuen, gertaeren errelatu bat eraikiz, jende ugariaren iritzi eta parte hartzearekin batera.

aztarnaren artean. Indusketak aurrera egiten zuen ahala, aztarna berriak agertzen hasi ziren eta, adibidez, irailaren 14an lehen aztarna erromatarrak agertu ziren, lanean zebiltzatzen adituen ezer monumentalak ez zela esaten bazuten ere.

Hilabete berean, Nafarroako Auzitegi Gorenak erreferendumaren aldeko baimen judiziala eman zien Iruñeko auzokideei, eta jarraian honen antolaketa martxan jarri zen. Hala ere, udaletxeak traba ugari jarri zizkion prozesuari eskola publiko edo hautestontzien erabilera debekatuz. Baina, irailaren 29an erreferenduma egin zen Iruñean. Guztira, 19.639 partaide izan zituen, zeinetatik 18.462 aparkalekua eraikitzearen kontra bozkatu zuten.

Azaroan, berriz, auzotarrek aurkeztutako denuntzia bideratu zuen auzitegiak udaletxeko urbanismoko delegatua zen J.I. Labiano, urbanismoko idazkari zen J. Lorda eta Principe de Vianako zuzendari zen J.R. Corpas deklaratzera deitu zituen. Hauen testigantzak entzun ondoren, epaileak indusketa arkeologikoari buruzko informe independente bat eskatu zion Aranzadi Zientzia Elkarteari. Hilabete bereko 23an, Erdi Aroko nekropoli bat aurkitu zutelaren berri eman zuten langileek 100 lurperatzetik gora zituena. Lau egun beranduago, udaletxeko bi zinegotzik, auzotar batzuekin, notario batekin eta argazkilari batekin, nekropoli hau ikustera sartzeko baimena eskatu zuten. Hau lortzerakoan, ikusi zuten eskeletoen ehuneko 30 desobiratuak izan zirela jada. Horrez gain, ikusi zuten indusketa arkeologikoa eta obra zibila aldi berean egiten ari zirela, ziena legez kanpokoak zen. Jarraian, 29an, udaletxeak epaileak bidalitako Aranzadiko adituei aztarnategirako sarrera debekatu zien.

2001 urtearen azken hilabetean zehar, Aranzadik arazo ugari izan zituen obrak ikustera sartzeko, epaileak sarrera ziurtatu zion arte. Hala ere, epailearen baimenarekin sartuko ziren egunean obrako langileek lurrez bete zituzten hauek aztertu behar zituzten zonaldeak, hauek egin nahi zituzten azterketak izugarri zailduz. Aldi berean, Mercedes Unzuak epailetan aurkitutako harresiak gazteluarekin zerikusirik ez zuela adierazi zuen.

2002 urtea hasi berri zenean tamaina handiko harresi baten aurkikuntzaren berri eman zuten obraren arduradunek. Hau gertatu eta lau egunera, urtarrilaren 15ean, Principe de Vianak aurretiaz aurkitutako termak kentzearen aldeko hautua egin zuen, nahiz eta ikerlari batek hauek hasiera batean esandakoa baino handiagoak zirela onartu izan. Erabaki hau hartu zenetik, egoerak txarrera baino ez zuen egin, otsaila hasieran

plazako aztarnak zituen zabortegei baten aurkikuntzarekin eta hirigintzako zinegotziaren dimisioarekin.

Otsaila amaieran, obra prozesu guzti honetan harrigarrien suertatu zen nekropoli musulmaren aurkikuntza egin zen, erantzun publiko handia altxatu zuena. Hala ere, aurkikuntza hau egin zenetik bi hilabetera Principe de Viana instituzioak plazako ondare osoa desmonatzea baimendu zuen, ondare guzti honi gelditzen zitzaion denborari muga ez oso urrun bat ezarriz, 2002ko maiatzaren 28an ondarearen suntsiketa sistematikoa hasi baitzuten, aztarna erromatarretatik hasiz.

Gertaera honen aurkako iritzi asko altxatu baziren ere (herritarren manifestazioak, Tramako langileek plandoak, etab.), ekainaren 6an epaileak kasua artxibatu egin zuen eta, azkenik, 2003 urtearen mugan, 2002ko abenduaren 30ean, Principe de Vianak plazaren urbanizazio osoa onartu zuen, ondarearen aztarnaren bat mantentzearen esperantza guztiz baztertuz.

3. Gazteluko Plazako nekropoliaren aurkikuntza testuinguruan

3.1. Gazteluko Plazako nekropoliaren aurkikuntza testuinguruan: “mairuak eta kristauak”

Urteetan zehar, historiografia espainiar eta hispanistak, “birkonkista” kontzeptua erabili du Erdi Aroko erreinu hispano-kristauak eta al-Andalusen arteko liskarrak instrumentalizatzeko (Rios Saloma, 2008:192). Erdi Aroko kronistika, bere bertsiu ugarritan, interes jakin batzuen alde lan egiten duen ariketa propagandistiko argi bezala ulertu behar dugu, beraz (Miranda García, 2016:116). Kontua da “birkonkistaren” kontzeptuak errealitate oso konplexu bat aurkezten digula, zeinetan faktore politiko, militar, territorial, eklesiastiko, espiritual, ideologiko eta mentalek eragin nabarmena duten (Rios Saloma, 2008:192).

Rios Salomak bere “La Reconquista: génesis de un mito historiográfico” lanean kontzeptu honek hiru arazo nagusi aurkezten dituela formulatzen du: arazo historiografikoa, “birkonkista” hitzaren esanahi aniztasuna eta honi eman zaion erabilpen politiko eta ideologikoa. Lehenengoarekin hasiz, Rios Salomak planteatzen du garrantzitsua dela ulertzea nola eta zergatik hasi zen “birkonkista” hitza erabiltzen kristauak eta musulmanek Iberiar Penintsulan protagonizatutako liskarra izendatzeko, Erdi Aroan ez baitzen inoiz erabili (Rios Saloma, 2008:192). Alde batetik, argudiatu

daiteke Goi Erdi Aroko kroniketan bai aurkitu daitekeela botere andalusiaren aurkako borroka-nahi bat, eta lurraldearen berreskurapen ideiak presente daudela dokumentazio astur-leondarrean (hala nola, elizen fundazio aktetan). Hala ere, egia da baita Alfontso III.ak hasi zuen proiektu politiko-ideologikoa gehiago zela *restauratio* bat, *recuperatio* bat baino. Hau, aurretik existitzen zen ordena politiko eta ekonomikoaren berrezartze bezala ulertzen zen, Albeldar kronikan agertzen denaren arabera "Oviedon ezarri zuen elizan eta jauregian bisigodoen ordena zaharra" izango litzatekeena. Testuinguru honetan, beraz, "bir konkista" baino, gehiago erabiltzen ziren "konkista" edo "irabazi" bezalako kontzeptuak (Rios Saloma, 2008:193).

Honen adibide bat jartzearren, interesgarria da Albeldar kronikako *Regibus Pampilonensibus*aren *additio*ari erreparatzean, 976an idatzi zen. Honek, zalantzarik gabe, musulmanekin eta erresumako jatorriarekin gerra erlijioso baten artean aurki daitekeen hurbiltasun handiena eskaintzen du. Errotik, errege baten sorrera, erresuma batena baino gehiago, kristau fedearekin eta "islamiar" en aurkako defentsarekin lotzen da, hauek konkistatutako lurretatik kanporatzen direlarik, jarrai ikus dezakegun bezala (Miranda García, 2016:118):

1. En la era 943 [año 905] surgió en Pamplona un rey de nombre Sancho Garcés. Muy unido a la fe de Cristo fue hombre devoto, piadoso entre todos los fieles y misericordioso entre los católicos. ¿Para qué decir más? En todas las circunstancias consiguió ser el mejor. Luchando contra los islamitas, causó muchos estragos entre los sarracenos. Cruzando Cantabria, tomó bajo su tutela todos los castillos desde la ciudad de Nájera hasta Tudela. Ciertamente poseyó la tierra de Deyo, con todas sus fortalezas. Además, puso bajo su autoridad la región pamplonesa. También tomó toda la tierra aragonesa con sus castillos.

Finalmente, expulsados todos los condenados, en el año vigésimo de su reinado abandonó el mundo. Sepultado en el pórtico de San Esteban, reina con Cristo en el cielo.

2. Igualmente, su hijo el rey García reinó cuarenta años. Fue benigno y causó muchas muertes contra los sarracenos. Y así murió. Fue sepultado en el castillo de San Esteban [...] (Miranda García, 2016:118)

"Kristauen erreinua zabaltzeko" ideia hori, berreskuratzearen nozioa behin eta berriz azpimarratu gabe, nahiz eta ezkutuan egon zitekeen, astur erresumari eskainitako kronikaren guneetan zehar errepikatu zen, adibidez, Alfontso I.a eta Ordon I.a Baina hemen, dela idazketa laburra delako, dela egilearen asmoagatik, berreskuratzearen, musulmanen gaineko konkistaren eta lurralde kristauaren barne-artikulazioaren ideia zuzenean ez biltzeaz gain, batera transmititzen dira, halako moldez non dilatatio

christianitatisaren ideia kanporantz transmititzen den, baina, era berean, kristau-unitate nabarrean nabigatzen den (Miranda García, 2018:118). Izan ere, eta Espainiako Errege Akademiaren arabera, "birkonkistatu" aditza lehen aldiz 1646an erabili zen, Alonso de Ovalle jesuitaren *Histórica relación del Reyno de Chile y de las misiones y ministerios que exercita la Compañía de Jesús* lanean. Hala eta guztiz ere, kristau eta musulmanen arteko liskarrari erreferentzia egiteko, hitz horren erabilera beranduagokoa da; izan ere, José Ortiz y Sanz valentziarrak 1796an argitaratu zuen Espänen historiaren Konpendio kronologikoaren bigarren liburukian baino ez zen agertu (Rios Saloma, 2008:194).

Bigarren arazoari dagokionez, Rios Salomaren iritziz, "birkonkista" kontzeptuak bost esanahi desberdin hartu zitzakeen, egoera eta testuinguruaren arabera, eta termino batek hain karga semantiko altua izateak balio zientifiko eskasa ematen diola. Hurrenez hurren, honakoak dira idazleak aurkezten dituen bost esanahi hauek: gotorleku, hiri edo hiribildu baten konkistak historian markatutako une zehatza; kristauen eta musulmanen arteko borroka sekularraren prozesu historikoa; gatazka horrek markatutako garai historikoa, Espainiako Erdi Aroarekin parekatzen dena; Erdi Aroko monarkiek, bereziki astur-leonesak, eraikitako ideologia bat, Kantauri mendikatearen hegoaldera hedatzea justifikatzeko eta legitimatzeko; eta azkenik, azken mendeko Erdi Aroko ikertzaileek aztertzen dituzten errealitateak aztertze eta deskribatzeko erabili duten kategoria historiografikoa (Rios Saloma, 2008:196).

Hirugarren eta azken arazoari dagokionez, aurkaritza honen erabilera politiko eta ideologikoa hain izan da nabarmena, lau etapa nabarmendu ahal direla. Lehenik eta behin, XVI., XVII. eta XVIII. mendeak aurkezten dizkigu Riosek, noiz konflikto honek espainiar monarkiak nazioarteko testuinguruan zuen egoera hegemonikoa legitimatzeko balio izan zuen. XIX. mendean, berriz, korronea pixka bat aldatu zen eta espainiar identitate nazional garaikidea sortzeko erabili zen, garaiko marko politiko eta kulturalen arabera (Rios Saloma, 2008:196). Honek eragin zuen Benedict Andersonen "imajinatutako komunitate" bat sortzen. Andersonek, honela deskribatzen ditu mende honetan sortu ziren mendebaldeko nazionalismoak: imajinatutako komunitate politikoak, mugatuak eta subiranoak direnak. Ikerlari irlandarraren arabera, harreman zuzeneko herrixka nagusiak (eta agian hauek ere) baino handiagoak diren komunitate guztiak imajinatutakoak dira, eta ez dira bereizi behar beren faltsutasun edo legitimitateagatik, baizik eta egoera hau irudikatzeko duten estiloagatik (Anderson, 1989:23-24). Espainiar komunitate naziolaren

sorrera honetan, kristau eta musulmanen arteko Erdi Aroko liskarrak garrantzi handia izango zuen (Rios Saloma, 2008:196).

Identifikatu daitekeen hurrengo etapa esanguratsua frankismoaren garaikoa izan zen, “birkonkista” erabili baitzuten Errepublikaren aurka altxatu izana justifikatzeko, honen aurkako borroka eta islamiar komunitatearen kanporaketarekin alderatuz nolabait. Eta azkenik, XX. mendearen amaieran eta XXI.aren hasieran, kontzeptu hau erabiltzeko hiru modu oso desberdin aurkituko ditugu. Hauetako bat, espainarra ez diren estatuko beste nazionalismoen eskutik emango da, independentzia handiagoa lortzeko argudio politiko bezala erabilia. Bestalde, “zibilizazioen talka” defendatzen dutenen arabera, Europa-mendebaldearen eta islamaren arteko liskarra Erdi Arokoaren luzapen simple bat bezala aurkezten dute. Azkenik, mundu islamiarrean, al-Andalusen “birkonkistaren” aldeko hotsak ere altxatu dira, islama berriz ere penintsulan ezarri nahi dutenak (Rios Saloma, 2008:197-198).

Argi dagoena da autore desberdinek oso argi izan zutela momentuko errealitatea eta interes pertsonalak Espainiaren (eta baita Nafarroaren) jatorriaren analisi eta azalpenak ezartzerako orduan (Miranda García, 2016:139). Horrela, XIX. mendean sortutako diskurtsoak behin eta berriz azpimarratzen du iragan horrek Espainia Europako beste nazio batzuetatik bereizten zuela, eta bere berezitasun nagusia dela herrialde horretako herriak mendeetan borrokatu behar izan zuela aberria atzerriko inbaditzaile batzuen eskutik "birkonkistatzeko". XVIII. mendetik aurrera, nortasun kolektiboa "aberri" eta "nazio" kontzeptuak bezalako oinarri politikoaren gainean eraikitzen hasi zenean, Erdi Aroko urte hauek espainair eta inbaditzaile atzerritarren arteko borroka gisa interpretatzen hasi ziren, non lehenengoen bigarrenak kendu zieten lurraldea berreskuratu nahi zuten (Rios Saloma, 2008:211-216).

3.2. Gazteluko Plazako nekropoliaren aurkikuntza testuinguru historikoan: Iruña eta al-Andalus

Al-Andalusen inguruko iturri asko galdu diren arren, iturrietan akordio orokorra dago penintsularen konkista al-Walīd I.a kalifaren erregealdian (86-96/705-14) hasi zela, Ṭāriq b. Ziyād eta Mūsà b. Nuşayr-en agintepean. 91. urteko Ramaḍān-ean/710. urteko abuztua-iraila artean, Ṭāriq-ek Espainia konkistatzeko bere plana gauzatu zuen, Abū Zurʿa Ṭarīf b. Mālīk al-Muṣāfirī buru zuen esplorazio-indar bat bidaliz, 400 oinezkok eta 100 zaldizkok osatzen zutena. Julianek hornitutako lau ontzitan itsasoratu

ziren, eta kostalde espainiarreko uharte batean lehorreratu zirenn. ʤarīfek arrakasta handia izan zuen Penintsularen hegoaldeko puntaren okupazioan, eta zenbait sarrera egin zituen inguruetan, inolako erresistentziarik aurkitu gabe (Dhanūn ʤāha, 1898:84-86).

ʤāriq-en lehorreratzearen albistea Roderikorengana iritsi zenean, egiten ari zena alde batera utzi eta hegoalderantz abiatu zen, Kordobako bere jarraitzaileei mezuak bidaliz. Bertatik, Witiza eta beste batzuei idatzi zien etsai komunaren aurka borrokatzeko. Bi armadak *regnum gothorum* delakoaren hego-mendebaldeko Sidonia eskualdean elkartu ziren, baina talkaren kokaleku zehatza ez da ezagutzen. Bisigodoak gudu honetan garaituak izan ziren eta hildako ugari izan zituzten, baina Roderikoren patua ezezaguna da. ʤāriq-en berehalako helburua garaituei jarraitzea eta haien erresistentziarekin amaitzea zen; horrek adierazten du bazekiela zein egoeratan zegoen Espainian garai hartan, eta bazekiela egonleku islamiar bat ezarri nahi bazen bisigotikoen boterearekin amaitu behar zuela (Dhanūn ʤāha, 1898:88-91).

Toledora iritsi zenean, hutsik aurkitu zuen, judu gutxi batzuk izan ezik, hiriko gobernadorea mendiez haraindiko beste hiri batera erretiratu baitzen. ʤāriq iheslarien atzetik abiatu zen, eta soldadu batzuk utzi zituen, juduen laguntzaz hiriaren defentsaz arduratu zitezen. ʤāriq-ek Penintsulan izandako arrakasta nabarmenaren berria Mūsà b. Nuṣayr al-Qayrawān-engana iritsi zenean, arabiar armada handi batekin Penintsulara joatea erabaki zuen egoeraren kontrola hartzeko. Horrela, ʤāriq Ipar Afrikatik irten eta ia urtebetera, Mūsà Penintsulara heldu zen, 93. urteko Ramaḍān-ean/712ko ekaina-uztaila bitartean (Dhanūn ʤāha, 1898:93-94).

94H./714 udaberriaren hasieran, Mūsà eta ʤāriq-en bateratutako indarrek ipar-ekialderantz jo zuten, Saragossa eta inguruko lurraldeak konkistatuz eta herrialdean sartzen jarraituz. Beste hiri asko okupatuak izan ziren tartean, hala nola, Tarragona, Bartzelona, Lleida eta Huesca, baina kanpaina hauen nondik norakoei buruz ez dakigu ezer, Huesca bake akordio bat sinatzearen ondorioz menperatu zela izan ezik. Saragossa erori eta Tarraconensis-aren zati handi bat errenditu ondoren, Mūsàk Ebro harana konkistatzea erabaki zuen. Saavedak iradokitzen duen bezala, bere indarrak bi sekziotan banatu ziren: zari bat ʤāriq-en gidaritzapean, eta bestea Mūsà beraren gidaritzapean. ʤāriq Ebro haranaren iparraldean zehar joan zen, eta, baskoien lurraldean sartu ondoren, Amaya, Astorga eta León okupatu zituen (Dhanūn ʤāha, 1898:98-99).

Musa eta Tāriq-en armadek konkista aurrera eramateko hiru metodo nagusi erabili zituzten Penintsulan barna zebiltzanean: *ʿanwa* edo armen bidezkoa, *ʿahd* edo paktuaren bidezkoa eta *walāʿ*² binkuluen bidezkoa. Lehenengoa, armen bidezko konkista, konkistatuek konkistatzaileei lurralderako sarbidea errazteari uko egitean ematen zen, eta konkistatuei negoziatzeko edo beren kapitulaziotik abantailarik ateratzeko edozein aukera ixten die. Honen ondorio ziren gizonentzako heriotza, emakumeentzako eta haurrentzako gatibualdia eta irabazleen artean ondasunak banatzea botin gisa; gainera, honen bosgarren bat (*jums* bezala ere ezagutua), agindu koraniko baten arabera (*al-sūra* 8, *al-āya* 41) *ummari* ematen zitzaion, Komunitate Islamikoari, hau da, estatuari (Lorenzo eta Pastor, 2011:63).

Bestalde, konkistatuek akordio bat lortzen bazuten armen bidezko konkista gertatu aurretik, hau da, konkistatzaileei erraztasunak jartzen bazizkieten, suhl edo kapitulazioaz hitz egiten dezakegu. Kapitulazioaren baldintzak, askotan, itun batean agertzen ziren, *ʿaqd* edo *ʿahd* izenekoa, eta, zantzu guztien arabera, idatziz jasotzen ziren, konkistatzaileentzat zein konkistatuentzat indarrean dauden klausulak jasotzen ziren testu batean. Horietan guztietan, konkistatzaileek bertako biztanleen bizitza errespetatzeko konpromisoa hartzen dute, eta horrek *ḍimmī* bihurtzen ditu, hau da, babestuak. Gainera, konkistatzaileek beren estatusa, ondasunak eta gurtza errespetatzeko konpromisoa hartzen dute. Ordainetan, Islamaren etsaiei babesik ez emateko baldintzarekin batera, menderatutako kokaguneko biztanleek zerga bat ordaintzeko konpromisoa hartzen dute, *yīzya*. Zerga hori, zama ekonomiko nabarmenekoa izateaz gain, konkistatuen konkistatzaileen subiranotasunaren onarpenaren zeinu ere bada, *umma* edo komunitate islamikoaren lurraldean bizi eta lan egiten zutenaren onarpena (Lorenzo eta Pastor, 2011:64).

Bigarren hau Iruñen eman zenaren berri dugu, Ibn al-Faradi-k bi testigantza jaso zituelako, ʿAlī ibn Rabāḥ eta Ḥanaš ibn ʿAbd Allāh al-Şanʿānī-renak. Hauek tabiʿī²-en taldeko bi kide diren heinean, hau da, profetako *ṣaḥābī*-ekin edo lankideekin zuzeneko harremana izan zuten pertsonak, bereizgarri bat ematen die, kalitate puntu bat gainerako

² Jarraitzailea. Profetaren kide bat edo gehiago (ashab) ezagutu zituen bigarren edo hirugarren belaunaldiko musulmana (Malló, 1996:231).

musulmanen aurrean. Iturriak ez du itunaren data zehazten, baina Ḥanaš 718an *lfrīqiya*-n hil zela uste denez, *ante quem* data bat ezartzeko gai gara. Halaber, ez ditugu klausulak ere ez ezagutzen, baina kontuan hartuta itun horiek nabarmen estereotipatuta zeudela, pentsa dezakegu ez dutela alde handirik beste leku batzuetako itunekiko, eta, Iruñeko biztanleei emandako bermeekin batera, *ŷizya* ordaintzeko betebeharra jasoko zutela, horrek dakartzan inplikazio politikoekin (Lorenzo eta Pastor, 2011:64-65). Argi dagoena da Kordobari tributu eta subordinazio politiko eta militarren truke, Iruñeko biztanleentzako autonomia maila bat lortu zela (Larrea, 2009:282-283). Azken hau behintzat, baieztatuta ikusten dugu 843an iruñearren *ŷizya* honen ordainketaren berri jasotzen dugunean (Lorenzo eta Pastor, 2011:65).

Lurraldeak islamiar-eremuan integratzeko hirugarren eta azkenengo modua konkistatuen eta konkistatzaileen leinuen artean *walāʿ*³ bidezko loturak eratzea zen. Jatorri aurreislamiarreko praktika da hau, eta horren bidez gizabanako bat, sarritan atzerritar bat, berea ez zen leinu bateko kide izatera sartzen zen mawlā gisa (erlazio honetako alde bakoitzak jasotzen duen izena). Honek integratutako gizabankoari pribilegioko lotura bat ematen zion adoptatu zuen leinuarekiko. Islamaren ezarpenarekin, praktika islamiartu egin zen, eta orduan leinu horretako kide bat islamera “esku bidez” (*bi-yaday*) bihurtu izan balitz bezala sartzen zen adopzio leinuaren zati izatera (Lorenzo eta Pastor, 2011:65).

VIII eta IX. mendeetan Iruñeri buruz iturrietan ematen den informazioa ez da oso zehatza eta honen izaerari buruzko zehaztasun asko ez ditu oso argi uzten. Hasteko, bertako erregeak *amīr*³ edo *ṣāhib* izena jasotzen dute, eta honek, legitimitate konnotazio bat badu ere, ez du alderik inguruko beste agintari batzuek jasotzen duten *malik*⁴ edo *ṭāgiya* (usurpatzaile, tirano) izendapenekin, *Yillīqiyya* edo Karlomagnoaren kasuan gertatzen den bezala (Lorenzo eta Pastor, 2011:66).

Era berean, arestian aipatu bezala, 843. urtean, Yanaqu ibn Waniqu *ṣāhib*-ak, Iruñeako *ṣāhib*-ak, Abd al-Rahman II.a emirrari *ŷizya* ordaindu izanari buruzko

³ Emir izenez ere ezagutzen dena, *amr* (boterea, autoritatea) duen pertsona, bertatik buruzagi, komandante buru, gobernatzaile edo jurisdikzio bateko burua, printzea, subiranoa (Maíllo, 1996:72).

⁴ Errege, subirano. Printzipioz erlijio islamiarrarentzat arrotza den hitza; Koranean Jainkoari erreferentzia egiteko erabiltzeaz gain, kanpotarren buruzagiak izendatzeko erabiltzen zen, botere publikoaren kontzeptio islamiarrari gaizki egokitzen zitzaion eta, Allāh-k soilik duelako islamiar guztien gaineko boterea, eta, beraz, antonomasiaz, Jainkoa izango da *malik* (Maíllo, 1996:148).

aipamena egiten du, eta Kordobaren subiranotasunaren onarpen seinale bezala ulertu behar dena. Urte horretatik aurrera, botinen harrapaketari buruzko aipamenak errepikatu egiten dira, baina, hala ere, Nafarroako erregeari *amīr* izendapena ematen jarraitu zaio. Horrek, Iruñea eta Kordobaren arteko harremanaren anbiguitasuna definitzen du, gutxienez 920. urtera arte. Urte honetan, nafar erregeak, gainontzeko latindar erresumetako eregeen trataera berdina jasatzera igaroko dira, eta hauen lurraldea arpilatze sistematikoen subjektu izatera igaroko da (Lorenzo eta Pastor, 2011:66).

4. Al-Andalusekiko ikuspegia zabaltzen duten hainbat aztarna

Gazteluko Plazan nekropoli islamiko baten aurkikuntzak, inolako dudarik gabe, zalantzan jarri zuen ordura arte Iruñearen Goi Erdi Aroko Historiari buruz jakiten zena, baina horrek ez du esan nahi honen inguru hurbilean ere, maila txikiago batean izan arren, ez diren agertu antzeko errelatu bat aurkezten dizkiguten hainbat adibide. Gauzak horrela, atal honen xedea da, lehenik eta behin Gazteluko Plazan egin zen indusketa arkeologikoaren xehetasunak ematea, baina baita persketiban jartzea Nafarroako hiriburuan bertan eta honen inguruan agertu diren beste zenbait aztarna arkeologikori ere, plazako *maqbara* honen aurkikuntza fenomeno berezi eta isolatu bat ez dela erakusten digutenak.

4.1. Gazteluko Plaza

Gazteluko Plazan lur azpiko parking bat eraikitze aldera eta ondareari buruzko legeak betetzeko, interbentzio arkeologiko bat egin behar izan zen bertan. Honetarako proiektua 2001eko ekainean aurkeztu zen eta obrek ondare arkeologikoan eragin larria izango zutela kasifikatu zuen, proiektuak aldi historiko desberdinetako aztarnen existentzia baieztatzen baitzuen (Faro, García-Barberena eta Unzu 2007-8:236). Iruñeko hiruguneak urteetan zehar izandako garapenaren arabera, erromatar garaiko aztarnak izateko aukera asko zeuden. Erdi Aroari zegokionez, berriz, zonalde hau harresitik kanpo egoteari utzi zionez, bazeuden aukerak ere garai hartako aztarnaren bat aurkitzeko, mendeen joanean plaza gaur egun duen itxura hartzen joan zelako eta bertan izaera ugariko eraikinak agertzen hasi zirelako bai zibilak, baita erlijiosoak edo militarrek (hala nola, XI-XVI. mende artea iraun zuen Aita Predikatzaile edo Dominikoen komentua). Aro Berrian, plazako gotorlekuak berritu egin ziren eta kaleak erregularizatu ziren. Honen ondorioz, aukera asko zeuden garai honetako gazteluaren harresiaren iparraldeko atala, eta hau inguratzen zuen hobia bertan agertzea. Gaur egun

ezagutzen dugun plazaren itxura ez da XIX. mendean arkitektura publikoa garatu arte agertuko Nafarroa gaztelaren eta Antzoki Nagusiaren eraikierarekin.

Aurrekari guzti hauekin, eta sondeoek potentzia arkeologiko handia zegoela erakutsi ondoren, indusketa hasi zen. 7.000 m²-ko zonaldea induskatu zen 2001eko ekainetik 2004ko martxoa bitartean, erromatarren garaitik gaur egunera arteko estratuak dokumentatuz Indusketak proiektuak aipatutako garai guztietako aztarnak deskubritu zituen, baina baita espero ez zen konplexu termal bat ere honekin lotutako auzo artisaubatekin batera. Baina hau ez zen izan indusketaren emaitza harrigarriena, hilerri islamiar bati zegozkioen ehorzketa kantitate handi bat ere erregistratu eta induskatu baitziren. Honek panorama berri baten irekiera eta Iruñeako asentamentu musulman baten existentzia baieztatzen zituen (Faro, García-Barberena eta Unzu, 2007-8:237).

Hilerri musulmana, *maqbara* izenaz ere ezagutua, hiriaren mugetatik kanpo kokatzen zen, mendebaldeko harresitik oso hurbil. Izan ere, oso probablea da hilerria harresiaren parean egotea, ate baten ondoan. Aurretiaz aipatutako erromatar garaiko termen aztarnen gainean kokatuta zegoen, beste nekropoli musulman batzuek kasuan ere errepikatu den fenomeno (Faro, García-Barberena eta Unzu, 2007-8:237). Nekropoliko ehorzketak 4.000 m²-ko zabalera kokatzen direla uste da, bere zabalera osoa ezagutzen ez den arren (Iparraldeko, hegoaldeko eta ekialdeko mugak ezin izan ziren zehaztu). Mendebaldeko muga plazaren erdialdean kokatzen dela pentsa daiteke, puntu batetik aurrera ehorzketen dentsitatea jeisten delako guztiz desagertu arte. Logikoa da hilerria ekialdetik okupatzen hasi zela pentsatzea, hau da, hiritik hurbilen dagoenetik, eta mendebalderantz hedatuz joan zela. Harresirik ez izateak muga zehatzak ezartzea ezinezko egin zuen (pentsatzen da ez dela kontserbatu ez denik, baizik eta ziurrenik ez zuela horrelako elementurik izango) (Faro, García-Barberena eta Unzu, 2007-8:240).

Nekropolia ez zegoen oso ondo kontserbatuta hainbat arrazoiren ondorioz, baina bereziki erdi Aroko beste hainbat eraikinen eta inguruan egindako uretarako putzuek eragindako kalteen ondorioz. Honi gehitu behar zaio depositu sedimentarioak ez direla uniformeak terma-eraikinen gainean egoteagatik, bereziki eta termaren gela nagusiak kokatzen diren zonalde naturalak aldatuta, eta batzuetan beheratuta egoteagatik. Horrela, hilobiratzeak eraikin erromatarrik ez zegoen lekuetan kontzentratzen ziren, termaren eraikinen barruan kopurua asko murriztuz. Guztira 190 hilobiratze aurkitu

ziren, kale zehazturik gabe antolatuta, baina bai batzuk euren artean lerrokatuta. Ez dago superposiziorik, eta dentsitate baxuko zonaldeak daude. Guzti honek erakusten digu ez zela erabilpen tarte luzeko nekropoli bat izan (Faro, García-Barberena eta Unzu, 2007-8:241).

Nekropoli islamiarrak soiltasunak definitzen ditu, hobiak ezin ziren gizon baten gerria baino sakonagoak izan, lurtean zulatu behar ziren, ezin ziren buztin edo igeltsuz egin, eta adreilu edo harriekin estali behar ziren. Normalean, hobiak hildakoaren neurrietara egokitzen ziren, oin aldean estuago bihurtuz. Kasu honetan, zuloak terraza kuaternaiarrean egin zirenez, adreiluen beharrik ez zuten izan eta erromatar garaiaurreko geruzak aukeratu zituzten nahita, mugitu gabeko lurak zituztelako. Gazteluko Plazan aurkitu diren hilobiratze-zuloak orokorrean estuak ziren zabalera, 30-50 zentimetrokoak. Hilobien estalki bezala hareharrizko lauzak erabili zituzten (Faro, García-Barberena eta Unzu, 2007-8:242). Orokorrean tumuluak aurkeztu zuten kontserbazio egoera kaxkarraren ondorioz, ezinezkoa izan zen identifikatzea seinaleztapen-elementurik izan zuten edo ez, normalean hilobiratzen islamiarren tumuluaren gainean gutxienez lau harri izaten baitzituzten, ertzak markatuz, eta oroigarri edo estela txiki bat (Royo *et al.*, 1992:338).

Gazteluko Plazan aurkitu diren aztarna guztien deposizio erritu bera jarraitzen dute: eskuineko alborra etzanda, oinari ipar-ekialdera begira, burua hegoaldera eta aurpegia hego-ekialdera, hau da, Mekara. Beheko gorputz-adarrak pixka bat flexionatuta agertzen ziren beti, baina besoaren posizioarekin zenbait aldaera agertu ziren: bi besoak pixka bat flexionatuta eta eskuak batuta pelvisaren altueran; beso zuzenak eta eskuak batuta pubisaren altueran; edo eskumako eskua zuzen eta ezkerrekoa gorputzean zehar desplazatua edo sakroaren altueran (Faro, García-Barberena eta Unzu, 2007-8:244).

Aurkitutako indibiduen azterketak erakusten digu haur eta helduen arteko proportzioa nahiko antzekoa dela, eta emakume eta gizonen artean ez dela desberdintasun askorik nabaritzen, nahiz eta gizonak apur bat gehiago diren. Adin oso altuko pertsonen kopurua oso txikia da eta aipagarria da baita 0 eta 1 urte bitarteko haurren eskasia (nahiz eta hau oso ohikoa den antzeko nekropolietan orokorrean) (Faro, García-Barberena eta Unzu, 2007-8:245). Bestalde, traumatismo eta patologiak ere aurkitu ziren, indarkeriazko gertakariekin lotuta. Azken hauekin lotuta, erradio eta

kubito frakturak dira nagusi “golpe gelditzeekin” eta arma zuriz eragindako lesioekin lotuta, zeintzuk zenbait kasutan indibiduoaren heriotza eragin zuten. Hala ere, horrelako egoerak aurkezten dituzten adibideak zona desberdinetan aurkitzeak eta hobi komunik aurkitu ez izanak batailan hil izanaren aukera desegiten dute (De Miguel, 2007:192).

Azterketa arkeologikoak egin zuen aurkikuntza nabarmenena, baina, helduaroko emakume baten hortz-manipulazioen ageriko zantzuak izan ziren. Honelako jarduerak Mediterranear itsasoaren beste aldean dute jatorria, eta ez ziren batere ohikoak Iberiar Penintsulan. Badirudi Afrikan direla ohikoenak mota honetako gorputz-aldaketak, zeintzun ez soilik intentziozkoak, baizik eta kutsu kultural nabarmenekoak ere badira. Adierazpen askotarikoa dute, hortzetako aldaketak, tatuajeak, eskarifikazioak..., eta, oro har, talde jakin bateko kide gisa identifikatzeko ahaleginarekin lotuta, edo pasoko erritu jakin batzuk gainditu izanaren zantzu gisa balio dute (De Miguel, 2016:258).

4.2. Antzeko aztarnadun Iruñea inguruko beste adibide batzuk

Iruñea inguruan antzeko tipologia aurkezten dizkiguten beste zenbait nekropoli ere aurkitu izan dira, batzuk, Gazteluko Plazaren antzera, egungo hiriaren mugen barruan, eta beste batzuk honetatik kilometro gutxira. Horrela, atal honen ikerketa xede izango dira Iruñean aurkitzen ditugun Argaray eta Kondestablearen Etxea, eta hiritik 10 eta 18 kilometrora aurkitzen diren San Estebaneko eta Arizkoako nekropoli kristauak.



3 eta 4. irudiak: Atal honetan aztertutako aztarnategien kokapen-mapak (Faro, García-Barberena eta Unzu, 2007-8:239 eta 249)

4.2.1. *Argaray*

Hasteko, Argarayko nekropolia Gazteluko Plazaren hego-mendebaldean kokatzen da IV-XI. mendeetan Iruñeren nukleoa zenetik kanpo. Bertan, 100 hilobiratzen baino gehiago aurkitu dira, denek burua ekialdera begira dutela. XIX. mendean industu

zen aztarnategia eta 1916ean Ansoleagak indusketaren emaitzak argitaratu zituen, hilerri franko bezala klasifikatuz (Martínez Núñez, *et al.*, 2020:176). Hala ere, lehen identifikazio hau kontrajartzen zuten iritziak agertu ziren hamakarkada batzuk beranduago, María A. Mezquirizek hilerri bisigotar bezala identifikatu zuenean 1965ean (Martínez Núñez, *et al.*, 2020:176-177), eta urte batzuk beranduago J. Navascuések zenbait eraztunetako grabatuak arabiar bezala idetifikatu zituenean, baita *bi-l-Andalus* inskripziodun felus⁵ bat ere (Martínez Núñez, *et al.*, 2020:177). Hala ere, azken honekin guztiz ados ez daudenak agertu dira, hala nola, Ana Labarta, zeinak 2017an beirazko pasta urdizeko bi txatoitan agertzen diren epigrafeak soilik hartu zituen arabiartzat (Labarta, 2017:301).



5. irudia: Beirazko pasta urdindun eraztuna, Argarayko nekropolia (Mártinez Núñez et al., 2020:177)

4.2.2. *Kondestablearen Etxea*


Kondestablearen etxea, XVI. mendeko dorretxe bat da (1548an Lerineko kondeak lau eraikin erostean kokatzen da jatorria), 1997an Interes Kultureko Ondasun izendatua izan zena. 2004an Iruñeko udaletxeak birgaitze bat onartu zuenean, zundaketa-katak egin ziren potentzial arkeologikoa neurtzeko, baina kata hauek ez ziren oinarritzko estratu geologikora heldu (Faro, García-Barnerena eta Unzu, 2007-8:258). Hala ere, proiektu arkeologiko bat garatu ahal izan zen, erromatar garaitik Aro Berrira arteko aztarnak aztertu zituena. Horrela, interbentzio arkeologikoa 2005eko maitzetik 2006ko hilabete berera arte garatu zen (Faro, García-Barnerena eta Unzu, 2007-8:259). Erritu kristauan hilboratutako 153 indibiduo identifikatu ziren indusketan, burua

⁵ Felus izenarekin, orokorrean, al-Andalusen garaian egin ziren balio gutxiko txanpon mota bat izendatzen da. Kobrezko txanponak ziren (arabiar txanpon gehienak ez bezala, urrezkoak edo zilarrezkoak zirenak), eta noizean behin egin ziren, modu esklusiboan, Espainiaren musulmanen inbasioaren hasierako garaian, Hegirako III. eta IV. mendeetan (kristau garaiko IX. eta X. mendeetan) eta Granadako nazaritar erresuman (Rodríguez, 1982:12)

mendebaldean eta hankak ekialdean zituztela, oinalde laukizuzeneko zistetan (Faro, García-Barnerena eta Unzu, 2007-8:262).

Eraikina Iruñeko nukleoan aurkitzen dugu, Gazteluko Plazaren ipar-ekialdean kokatua. Aztarnategi hau 2005-2006 bitartean industua izan zen eta lehen emaitzak 2007-2008 bitartean argitaratu ziren. hauen arabera, 153 hilobiratze identifikatu ziren erritual kristauaren lurperatuak, baina zenbait kasutan hatuarekin. Hatu hau eratzten duten artikuluen artean, epigrafe arabiarak aurkezten dituzten zenbait eraztun identifikatu dira, Argarayko kasua gogorarazten digutenak (Martínez Núñez, *et al.*, 2020:179). Eraztun hauek aurkezten dituzten indibiduoak VII. mendearen bigarren erdialdeko eta VIII. mendearen hirugarren laurdeneko bezala identifikatu ahal izan dituzte adituek.

Eraztun hauek hiru hilobitan identifikatu dira: 4, 42 eta 153. hilobietan. Lehenengoari dagokionez, gizon heldu baten hilobia da eta jada aipatutako beirazko pasta urdineko txatoizko eraztun baten txatoi baten atal bat idetifikatu ahal izan da, *ḥasbī Allāh* (jainkoa aski zait) testu koranikoa aurkezten duena. Gainera, *Allāh* hitzaren amaierako bi adarren artean izan bat aurkezten du. 42. hilobiaren kasua, emakume heldu gazte bat aurkitzen dugu, eskuetako atzamar bakoitzean eraztun bat daramana. Hautetariko lau zilarrezkoak dira eta koloreko beirazko pastaz egindako txatoi bat dute (hiruk urdin kolorekoa, eta batek hori kolorekoa). Txatoi hauek karaktereko kufikodun idazkiak dituzte negatiboan, eta aurreko kasuko testu koraniko berdina aurkezten dute (*ḥasbī Allāh*), kontserbazio egoera oso kaxkarrean aurkitzen badira ere. Azkenik, 153. hilobian gizon heldu zahar baten aztarnak aurkitzen ditugu, zilarrezo zigilu-eraztun bat daramana, txatoi lakizuzen batekin (Martínez Núñez, *et al.*, 2020:180). Honetan arabiarak izan daitezkeen zeinuak agertzen dira, baina kontserbazio egoeraren arabera ulertezinak bihurtu direnak (Labarta, 2017:307).



6. irudia: Beirazko txatoidun zigilu-eraztuna, Kondestablearen Etxeko nekropolia (Mártinez Núñez *et al.*, 2020:179)

4.2.3. San Esteban (Beriain)

San Estebaneko nekropolia Iruñearen hegoaldean kokatzen da, hiriburutik 10 kilometrora. 2001eko lehen interbentzio arkeologiko batek nekropoli kristaua azalerratu zuen, eta talde arkeologikoa 2004 eta 2005 bitartean beste bigarren interbentzio sakonago bat egitera bultzatu zuen. Horrela, 330 hilobi aurkitu zituzten, San Estebaneko ermitarekin lotura izan zezakeen beste eraikin baten aztarnekin batera (Faro, García-Barnerena eta Unzu, 2007-8:267).

Hilobiratzeak kale paraleloen arabera zeuden antolatuta, eta guztira 2.100 m²-ko azalera hartzen zuten (Faro, García-Barnerena eta Unzu, 2007-8:268). Hurbilketa kronologiko batek XI. eta XIII. mendeen artean kokatzen ditu aztarnak, eta guztira hauetako %10etan hatua identifikatu zen zeinen barruan 9 txanpon arabiar identifikatu dira (Faro, García-Barnerena eta Unzu, 2007-8:269-271). Hau, hala ere, ez da salbuespenezko egoera bat, atal honetako aztarnategien azalpenak ezer erakusten badigu; bereziki kontuan hartzen badugu X. eta XIII. mendeen artean Iruñean zirkulazioan zegoen moneta indartsuena islamiarra zela (Ramírez, 2001:99). Hauen artean, ʿAbd al-Raḥmān III (300-350H./912-962), ʿAbd al-Ḥakam II (350-366H./961-976) eta Hišām II (366-399H./976-1009) garaiko *dirhamak*⁶ identifikatu dira (Faro, García-Barnerena eta Unzu, 2001-8:271-272).



7., 8. eta 9. irudiak: Hurrenez hurren, ʿAbd al-Raḥmān III, ʿAbd al-Ḥakam II eta Hišām II garaiko *dirhamak* (Faro, García-Barnerena eta Unzu, 2007-8:272 [44])

⁶ Dirham (grezierazko drahme hitzetik). Sistema monetario islamikoaren zilarrezko unitatearen izena. Dirhamak sasanida drakma imitatzen zuen eta antzinakoenak lehen omeiek egin zituzten, baina ʿAbd al-Malik izan zen piezaren estiloa 77/696-7an finkatu zuena. Bere pisua 2,97 gramokoa zen, urrezko txanponarekiko balio erlazioa, dinar bategatik 10 dirhamekoa zelarik (Maïllo, 1996:64)

4.2.4. Arizkoa (Monreal/Elo)

Atal honetako azken aztarnategia Arizkoako nekropoli kristaua da, Iruñeren hego-ekialdean kokatzen dena, 10 kilometrora. Nekropolia kokatzen den herria Iruñeko bailara Irunberri-Agoitzeko bailararekin lotzen duen bide naturalean kokatutzen da, zonalde estrategiko bihurtuz, eta honen eraginez aztarnategi arkeologikoen dentsitate altua du (Faro, García-Barnerena eta Unzu, 2007-8:273). Guztira 342 hilboiratze identifikatu ziren, kale paraleloetan antolatuta eta eritual kristauean lurperatuak, gehienak oinplano obalatuan, laukizuzenean baino gehiago. Hauetatik %7ak soilik zuen hatua, eta hauetatik izera apotropaiko eta profilaktikodun medaila izateko zulatutako 7 kaliferrien garaiko *dirham* aurkitu ziren, San Estebanekoen antzekoak (Faro, García-Barnerena eta Unzu, 2007-8:276-277).

5. Ondorioak eta aurkikuntzak planteatzen dituen galdera berriak

Gazteluko Plazako indusketa arkeologikoa, lan honen ardatz izan duguna, nafar arkeologian eragin argudiaezina izan zuen aurkikuntza izan zen, eraginak izan zituena nafar gizartearen maila askotan, ez soilik akademian. Horrelako eragina eta erantzun mediatikoa duen edozein gertaerarekin bezala, suposatzea da oraindik ere, ia aurkikuntza baino 20 urte beranduago, izango duen eragin guztia ikusi ez dugula.

Iruñeko Alde Zaharraren bihotzean aurrera eraman zen indusketa honek, beste antzeko jarduera arkeologiko askok baino askoz eragin handiagoa izan zuen eta hau gelditzen da garaiko egunkariei so egiten badiegu, erantzun mediatiko izugarria izan baitzuen, Iruñeko auzotarren artean indusketa-prozesuak sortu zuen suminaren ondorioz. Gaur egun, indusketa egin zen lekuan ez da honen aztarnarik aurkitzen ia (lur azpiko aparkalekuan dauden Erdi Aroko harresiaren arrastoez gain) eta Gazteluko Plazaren Plataformaren liburua edo indusketaren txosten arkeologikoagatik ez balitz, dagoena baino ahaztuago egongo litzateke egoera. Baina, agian, aztarnekin egon zen maneiu okerrak lagundu zuen publiko orokorraren begietan indusketari garrantzia handiago ematea eta prozesu osoan zehar espezialista profesionalez gain iruñarrek ere iritzia erakustea.

Hala ere, esan daiteke iruñar auzotarren kezka nagusia ez zela aurkitutako aztarnekin kontatzen zuten errelato historikoa, baizik eta aurkitu zena, zena zelakoa, era egoki batean tratatzea, Iruñea hiriaren ondaren historikoaren zati zen heinean.

Horregatik, ziurrenik indusketa-prozesua hurbiletik bizi izan zuen edozien iruñarrerik galdetuz gero, nekropoli islamiarraren eta honen esanahi historikoari buruz baino, prozesuaren polemikari buruz gehiago jakingo duela suposatzeak zilegi dirudi.

Egoera honetan kontuan izatea garrantzitsua den beste erantzun bat publiko profesionalarena da, hau da, nafar historialariena. Nafar historiografia, espainiar historiografiaren antzeko ildotik, tesi oso konfrontazionaletan egon da trabatuta XIX. eta XX. mendeetan zehar, eta aurreko lerroetan aipatu bezala, “bir konkista” kontzeptua instrumentalizatuz eta espainiar identitate nazionala “kanpotarren” aurkako liskar historikoan oinarrituz. Azken ideia hau gaur egun ere hauteskunde kanpaina askotan ikusi dezakegu.

Gazteluko Plazaren nekropoliaren aurkikuntzak eta ezartzen zuen lerro kronologikoak, baina, XXI. mendean errelato honen aldaketa bat bultzatu zuen, eta diskurtso bateratzaileagoak agertzen hasi dira, Iruñearen identitatea, edo penintsula osoarena, bloke zurrun bat izatetik, mendeetan zehar eman zen nahasketa kultural eta genetiko baten ulerkera batera eramanez. Hala ere, korronte hau hasi berria baino ez da, eta oraindik ere ildo honetako azterketa ugari falta dira, errelato historiografiko hau historiagintza nafarrean sendo zimentatu daiten.

Oro har, esan dezakegu, Gazteluko Plazako aztarna islamiarren aurkikuntzak, eta inguruko beste zenbaitekin lotu ahal izanak, bidea zabaltzen diola nafar historiografia islamiarrari azterketa arloa zabaltzeko, eta aurreko ideiarekin aurkeztutako identitate anitz eta eklektikoaren ideia garatzeko. Izan ere, Iruñearen bihotzean horrelako aztanak aukitu ahal izan badira, ez da zaila pentsatzea inguruan ere aztarna gehiago egon daitezkeela, indar edo interes faltagatik bilatu ez direnak eta pentsaera korronte berri hau indartu edo baztertzea eragin dezakegetan. Azken finean, kontuan izan behar duguna da historia bezalako ikerketa-arloak konstanteki aldatzen ari direla, eta ezin garela errelato klasiko batean trabatuta geratu. Ez dago ikerlari batean ezaugarri garrantzitsuagorik mentalitate zabal bat eta berrikuntzak onartzeko ahalmena baino.

6. Bibliografía

- ANDERSON, B. (1983): *Imagined Communities. Reflections on the Origin and Spread of Nationalism*, VERSO, Londres.
- DE MIGUEL IBÁÑEZ, M.P. (2007): “La maqbara de la Plaza del Castillo (Pamplona, Navarra): avance del estudio osteoarqueológico”, in *Villes et campagnes de Tarraconaise et D’Al-Andalus*, Diputación de Huesca, Huesca.
- DE MIGUEL IBÁÑEZ, M.P. (2016): *La “maqbara” de Pamplona (s. VIII). Aportes de la osteoarqueología al conocimiento de la islamización en la Marca Superior*, Alacanteko Unibertsitatea, Alacant.
- DHANŪN ṬĀHA, A. (1989): *The Muslim conquest and settlement of North Africa and Spain*, Routledge, New York.
- FARO CARBALLA, J.A.; GARCÍA-BARBERENA UNZU, M.; UNZU URMENETA, M. (2007-8): "Pamplona y el Islam. Nuevos testimonios arqueológicos", in *Trabajos de Arqueología Navarra* 20, 229-284.orr.
- Gazteluko Plaza Aldeko Plataforma. (2003): *Plaza del Castillo (2000-2003): Una lección de democracia ciudadana frente a la destrucción de 2.000 años de patrimonio*, Ganbara, Iruñea.
- LABARTA, A. (2017). *Anillos de la Península Ibérica*, Editorial Ángeles Carrillo Baeza, Valencia.
- LARREA CONDE, J.J. (2009): “Construir un reino en la periferia de al-Andalus: Pamplna entre los siglos VIII y X”, in *Symposium Internacional: Poder y simbología en la Europa altomedieval*, Reti Medievali, Verona, 279-308.orr.
- LORENZO JIMÉNEZ, J; PASTOR, E. (2011): “Al-Andalus ¿en la periferia de Vasconia? Sistemas de dominación de *bilad Banbaluna* y de *Alaba wa-l-Qila* en la octava centuria”, in *Vasconia en la Alta Edad Media, 450-1000: poderes y comunidades rurales en el norte peninsular*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Vitoria-Gasteiz, 55-69.orr.
- MARTÍNEZ NÚÑEZ, M.A.; DE MIGUEL IBÁÑEZ, M.P.; GUTIÉRREZ LLORET, S. (2020): “Anillos con epígrafes árabes en contextos funerarios de Pamplona”, in *El*

sitio de las cosas. La alta edad media en contexto, Alacanteko Unibertsitatea, Alacant.

MIRANDA GARCÍA, F. (2016): “La lucha contra el islam y los orígenes del reino en la historiografía medieval navarra como ejercicio de propaganda política”, in *Temas Medievales*, 24, 115-139.orr.

OROZ, C. (2003): *Una de romanos*, Diario de Navarra, S.A., Iruñea.

RAMÍREZ, E. (2001): “La moneda y su circulación durante la Restauración de la monarquía: de García Ramírez a Sancho VII el Fuerte”, in *La Moneda en Navarra*, Museo de Navarra, Iruñea 97-110.orr.

RÍOS SALOMA, M.F. (2008): “La Reconquista: génesis de un mito historiográfico”, in *Historia y Grafía*, 30, 191-216.or.

RODRÍGUEZ LORENTE, J.J. (1982): *Prontuario de la moneda arabigo española*, Dayton, Madrid.

ROYO, J.I.; VILADÉS, J.M.; CEBOLLA, J.L. (1992): “Excavación de urgencia en el yacimiento de El Quez y su necrópolis islámica (Albertite de San Juan, Zaragoza)”, in *Arqueología Aragonesa* 12, 1990, 335-342.or.

URMENETA, A. (2015): https://issuu.com/h28aldizkaria/docs/h28_saretirikoa